



Mikel Urduangarin

Zubia, batzen gaituena

Jorge Luis Borges idazle argentinarrak esan zuen: liburua zorientasun forma bat da. Eta zorientasuna berez etortzen da, ez zaio trabarik jarri behar. Horrexegatik, liburu on guztiak erraz irakurtzen dira. Horixe zion Borgesek. Gauza bera esan dezakegu Mikel Urdangarini buruz. Mikeli kantuak berez sortzen zaizkiola ematen du, ez diola trabarik jartzen barrutik darion musikari. Erraz entzuten dira haren kantak, nahiz eta konposizio lan handia egon atzean.

Eta ustezko erraztasun horrekin eman zituen argitara hasierako bi diskoak, “*Haitzetan*” eta “*Badira hiru aste*”. Bi lan horietan dauden kanta batzuk jendeak oraindik ahapetik kantatzen ditu, askotan jakin gabe Mikel Urdangarinek sortutakoak direla, herrikoiak balira bezala kantak, beti-betikoak. Izan ere, ez dago ezer ederragorik kanta batentzat herritartzea baino. “*Espilue*” lanarekin entzulegoa handitu zuen nabarmen. Diskoak indar handia du zalantzarik gabe. Gomutan dut Arriaga Antzokian eman zuten aurkezpen kontzertura joan nintzela eta antzokitik bizipoz handiarekin atera nintzela. Eta susmoa hartu nion bazetorrela euskal kantagintzara olatu berri bat, gauzak egiteko era berri bat. “*Bar Puerto*” proposamena ausarta izan zen oso, “*Espilue*” lanak izan zuen itzalaren atzetik. Disko berritzailea, eta adierazgarri, Mikelek ez duela maite gauza bera bi aldiz egitea, bide bera birritan igarotzea. “*Heldu artean*”, oster, proposamen urbanoagoa da, gauekoa eta epela. Baditu doinu alaiak ere, popetik hurren daudenak, “*Oihana*” edo “*Negua*”, esate baterako.

2003ko martxoan Mikel Urdangarin bera, Rafa Rueda, Bingen Mendizabal, Mikel Valverde eta bostok New Yorkera egin genuen bidaiak egitasmo berri bat jarri zuen abian, “*Zaharregia, txikiegia agian*” CD-liburua. Kantak eta poema irakurriak daude bertan. Gogoan dut Mikelek garai hartan esaten zuena: jendeak diskoa dena segidan entzun behar du, jakingo ez balu bezala noiz datorren kanta eta noiz poema. Eta entzun dezala osorik behin eta berriz, ohiko disko bat balitz bezala. Asmoa zen entzuleak poesia entzun zezan naturaltasun osoz, poesia publiko zabalago batera helaraztea. Egitasmoak atzea ekarri zuen, eta Arkaitz Basterra zinegileak dokumentala aurkeztu zuen 2006ko Donostiako Zinemaldian taldearen estetikan oinarrituta.

Honen guztiaren ondotik etorri zen “*Dana*”, orain arteko azkena, sonoritate berri bat zuena helburu, atmosfera zabalak sortzea.

Mikelen begirada lagun batena da. Eta lagun onaren begiradarekin istorioak kontatzen zizkigun “*Anek idatzi dit zutaz*” azkenaurrekoan: Sebastian esne-saltzailearen istorioa, nola haren behiek ez zuten esnerik ematen. Eta panderoaren gizonarena ere kontatzen zigun, nola erosi zuen gizonak pandero berria Vigon eta harro erakusten zien Olaztiko baserritar zaharrei. Eta, orobat, Mekoleta izeneko auzo txiki bateko jaien berri ematen zigun, jai txikiak izan ere, egunsentian orroka hasiko diren igelak bezain txiki.

“Zubia”, bere azken diskoak, badu zerikusia aurrekoarekin, baina era berean, erabat desberdina. Bi diskoak daude ibai beraren alde banatara, baina behin zubia igarota ikusten dugun paisaia erabat bestelakoa da. “*Zubia*”, ez da hainbeste istorioak kontatzen dituen diskoa. Istorioak baino, bertan areago daude sententzioak, sentimenduak, egoera animikoak. “*Zubia*” hura gurutzatzera sekula ausartu ez ginen zubi hura da eta, behin igarota, betiko aldatuko gaituen zubia. Edadean sartuta haurtzaroko tokietara itzultzen garenean igaroko dugun zubi zaharra, horixe ere bai.

Zubia zerbait hauskorra da, zubia da aurrena botatzen dena gerra garaietan. Baina batzen gaituen hori ere zubia da, lotura beharrezkoa. Mikelen ahotsa bezala. Itxura batean hauskorra du boza Mikelek, baina guztiz beharrezkoa bilakatzen zaigu, munduarekin adiskidetzen gaituen zilbor-estea baita.

Kirmen Uribe

Mikel Urdangarinen taldeko partaideak:

Rafa Rueda – kitarra elektrikoa

Bingen Mendizabal - bibolina

Pablo Tato - saxo

Saihela - bateria

Koldo Uriarte - teklatura

Mikel Urdangarin – ahotsa eta kitarra